

ZAPATAK

Ikusleak eskenatokiaren bueltak jarriak daude, espazio borobil bat eginaz. Eskenatokian zapatak daude barreiatuak nonahi, era guztietako oinetakoak, norbaitek airetik bota izan balitu eta erori diren moduan utziak. Sirena hotsak entzuten dira eta leherketa batzuk. Dena ilunpetan geratzen da. Hegazkin militarren zarata entzuten hasten da. Bonbardaketa bat da. Burrunbak argi leherketekin nahasten dira. Alde guztietatik datoz. Ezin da sumatu arriskuaren norabidea, lau haizetatik dator. Bonbardaketa gelditzen denean, eskenatokia argituko da, baina zatika, argia ez dator dena batera. Emakume bat ageri da erdian, belauniko, eskuetan haur oinetako pare bat duela, odolduak. Emakumea gaztea da. Daramazkien arropak mendebaldeko itxura dute, baina lepoko bat darama zintzilik; beharbada orain dela gutxi arte burua estaltzen zion. Oinetakoak laztantzen ditu, panpina bat baliran.

Lasai oraingoz amaitu da. Txoritzarrak ez dira berriro itzuliko. Baina zer axola zuri. Zure oinek ez dute lur madarikatu hau berriro ibiliko. Zer axola zuri orain txorien hegalaldiak, ilunak edo koloretsuak izan. Orain zure oinak libre dira nahi duten lurra urratzeko. Lur beltzak, lur idorrek, bustiak, koloretakoak, lur porlaneztatuak. Orain zure oinak libre dira pausuak nahi duten norabidean jartzeko. Oinetakorik gabe askeago izango zara. Oinetakoak asmatu omen zituzten pertsona lurretik aldentzeko, bere arima lurrarekin bat egin ez zezan. Eta, lurra ematerakoan ere zapatak gurekin eraman ohi ditugu. Batzutan ordea, galdu egiten ditugu, eta orduan sentituko dugu behearen hotza. Sentituko dugu hautsa behatz artean sartzen, harri txintzarrien kilika, eta egurraren beroa. Baina arrotz sentituko dugu ibiltzen dugun lur hori, oinetakoen babeslekitik igorriak. Zapatak galtzea gure baitako galera da. Zapatak uzten ditugunean etxe atarian, biluzik sartzen gara, garena erakutsiz. Eta orain zure oinetako txikiak baino ez dizkidazu utzi. Zure etxe ataria banintz legez.

(Isildu egiten da une batez, memorian etxea irudikatzen ariko balitz bezala. Agian etxe eder bat zeukan, pikondoa atarian, uda beroan gerizpe lasaia eskaintzen zuena. Eta eguerdi partean otorduaren usainak leihotik kanpora zabaltzen ziren. Une batez usain horrekin gozatzen ari dela dirudi, baina une txiki batez, ia susmagaitza. Bat batean itzuli egiten da, zerbaiten bila ariko balitz espazioan)

(Desesperatuta) Nork esan zuen eskolan babestuak egongo zirela? Nork? Zertarako eskolara bidali hitza lapurtu dietenak? Zer ikasiko du inexistenziara kondenatuta dagoena? *(isiltzen da. Besoetan dituen oinetakoak laztantzen ditu. Lasaiago)* Txikitan eskola txiki bat egin

ziguten. Hasieran ez genuen. Ez ginen hangoak. Inor ez zen hangoa. Leku hura ere ez zen hangoa. Gu heldu aurretik ezer ez zegoen. Lur eremu idor eta zabala baizik. Eta asko ginen, gehiegi. Haurrak ugari. Haur asko eta asko ginen. Eta ez genuen eskolarik. Etxea ez genuen bezalaxe. Gentozen lekuan etxe bat bageneukan. Txikia. Umila. Baina atea giltza handi batez zabaltzen eta ixten zen. Etxe horren giltza baino ez zitzaigun geratu, itzultzearen itxaropena. Giltza handi eta astuna, patrikan eraman ezina, gerritik zintzilik eraman behar zen. Eta heldu ginenean hura geneukan altxor bakarra. Aitak, egunero koipeztatzen zuen, herdoilak ez hartzeko, esaten baitzuen, giltza herdoiltzen bazen, gure itxaropena ere herdoilduko zela, eta etxea ahaztuta gure arima ere ahaztuko genuela, ibilitako urratsetan galdurik.

Eta gero eskola egin ziguten hurrei. Eskola etorkizuna baitzen. Guk, iragana baino ez genuenok, etorkizuna amesten genuen. Eta etorkizun horretan pasealekuak zabaltzen ziren, eta bulebarrak, eta eskutik helduta paseatzen ginen, udaberriko arratsalde epeletan, unibertsitatetik bueltan. Egun batean koloretako arkatzak eta koadernoak ekarri zizkiguten, auskalo nondik lortuak, eta goiza eman genuen marrazkiak egiten. Irakasleak banan bana partitu zituen guztion artean. Esan zigun koadernoak irudimenaren erakusleioak direla. Koaderno batean amets guztiak sar daitezkeela eta behin bertan itsatsiz gero, paperak erreta ere, amets horiek ez direla inoiz desagertzen. Ametsak airean omen daude eta esna gaudenean, arnasten ditugu, gero, lotarakoan, kanporantz irteten direlarik. Amets batzuek ez dakite irtenbidea bilatzen, eta gaiztotzen omen dira orduan, amesgaiztoak bihurtzen. Libre ibiltzen ikasten dutenek, ordea, libre senti arazten gaituzte. Horregatik ez zuen maite aire kutsatua, irakasleak. “Aire kutsatuak barruak belzten dizkigu eta ametsak ilundu”- zioen koadernoak partitzen zituen bitartean. Eta paperak koloreztatzen eman genuen goiza. Nik, ederki gogoan dut, itsaso zabal urdina margotu nuen, eta bertan belauntzi bat, belauntziaren barnean neska bat eta mastarik handienez txori bat. Eta belauntziaren alboan, bere bidea jarraituz, izurde bat. Nik inoiz ikusi gabeak nituen, ez belauntzia ezta izurdea ere, baina argazkiak zituen aldizkari batean bai. Txoria, txikitan etxean kaiolatuta genuena margotu nuen. Eta irakasleak galdetu zidan ea nora zihoan belauntziak, zein portura. Nik erantzun nion nabigatu egiten zuela, besterik gabe. Gainera ez nuela porturik ezagutzen, nik leku hartako kaleak baino ez nituela ezagutzen, esan nion. Eta denbora luzez egon zen itsatsirik etxeko pareta batean marrazki hori. Etxea suntsitu zuten arte.

(Isilunea. Aurpegian oroimen batetik besterako aldaketa ikusten zaio. Oroimen gozo eta lasai batetik, urduritasunera igarotzen da)

Goiz batez heldu ziren. Aurretik soldaduak, eta tankeak, eta gertutik suntsitze makinak. Metalezko munstroak. Amets gaiztoenetan ere agertzen ez direnak. Laster batean harri pila baino ez zen geratzen, eta gure amaren

oihuak eta negarrak ditut gogoan. Semea galdu berria zuen eta orain etxea. Berrero. Aitak eskuetan zuen giltza zaharra, estuturik. Eta gu kalean eserita, ez malkorik ez zotirik. Ohitura hartua genuen halakorik ikusten. Nire marrazkia gogoratu nuen. Itsasontzia harri hondakinen artean nabigatzen imajinatu nuen, ekaitz hartatik ihes egin nahian. Osaba izeben etxean egin ziguten lekua. Gau horretan itsas zabal batekin amets egin nuen. Eta belauntzi batekin. Eta belauntziaren bidaia jarraituz izurde bat zegoen. Eta mastarik luzeenaren puntan, txoria, eta ni, lemazain. Horixe da gogoratzen dudana azken ametsa.

(Argiak moteltzen dira eta emakumea kuzkurtzen da lurrean lo hartzearen itxuraz. Belauntzi batek gurutzatzen du eskenatokia. Bere gorputzean nabigatzen du. Izurde txiki bat gorputzean jauzika ari da. Haizearen eta itsasoaren doinuak baino ez dira entzuten. Eta emakumearen barnetik ilargi handi bat agertzen da, motel, lasai, denborarik existituko ez balitz bezala. Bat batean emakumea mugimendu urdurietan hasten da, ametsetan. Zerbait gertatzen ari zaio. Itsasoaren irudi onirikoa berehala desagertzen da, bat-batean ia. Murmuratzen du zerbait hortz artean, baina berehala oihuka hasten da. Derrepentean esnatzen da, beldurra jota. Argia)

Irten hortik! Irten hortik! Kontuz! Badatoz! Badatoz! Irten Hortik!
(Altxatzen da eta zerura begiratzen du ikaraturik. Keinuak egiten ditu, norbait deitzen ariko balitz bezala. Keinuak urduriak dira, ikaratiak. Esango genuke oraindik ametsetan dagoela, sonanbula agian. Orduan, tupustean, esnatzen da. Isilik geratzen da inguruari begira. Lur gaina oinetakoz beteta ikusten. Begiekin zerbait bilatzen ari da. Eskuetan, magalean babesturik, zituen oinetako txikiak ikusten ditu lurrean, etzanda zegoen lekuan. Makurtzen da. Hartzen ditu)

Udaberriekin datozen txoriek berri onak ekartzen omen dituzte. Bisitatu dituzten lurraldeen berri dakarzkigute eta iragartzen arbolak loratzen hasiko direla. Txorien kantuek alaitzen dute luzatzen hasi den eguna eta haurren jolasek kaleak argitzen dituzte. Itxaropenaren iragarleak omen. Ez dut ikusten, ordea, txoririk heltzen, ez ditut bere kantuak entzuten, ezta haien hegaldi biziakin zeruko urdina bereizten. Ez ditut haurrak kaleak jolas alaietan susmatzen, ezta euren kantuak entzuten. Eskolarako bidean ez dabil inor, ez baita eskolarik agertzen. Hemen hegan dabilzan hegazti bakarrak burdinazkoak dituzte hegalak, eta euren kantuak txilio zorrotz amaigabeak ditu. Heltzen direnean negurik gorriena iragartzen dute, suzko elur zuria eta lore sorta leherkariak. Haurrek eskolarako bidean noranahi ihes egiten dute lasterka, kanturik gabe, jolasik

gabe. Eta eskola desagertu da. Hemen ikastea debekatuta dago. Ihes egitea debekatuta dago. Jatea debekatuta dago. Hemen dena dago debekatuta, hiltzea bera ere ukatzen da. Hemen ez gara ez inor ez ezer, lehertzen diren etxeetako adreiluak baizik. Inexistentziara kondenatuak garen itzalak baino ez gara. Hemen gaude, baina inork ez gaitu ikusten. Oihukatzen dugu, baina gorrieriak jota dago mundua. Inexistentziara kondenatua dagoenak badaki, oroimena dela bere euskarri bakarra, bizitzari lotuko dion zilborreste bakarra.

(Oinetakoak laztanduz. Errealitatera itzultzen da) Eta zuk zein etxetako hondakin bihurtu zaituzte? Nora joan da zure irribarrea? Non dira zure urrats azkar eta txikiak? Hanka txiki horiek ez zintuzten urrutira heltzen uzten. Zergatik sortu ote zintudan? Zertarako bizitza eman jaio aurretik heriotzara kondenatuta bazeunden? Sehaska kantuetarako astirik ere ez genuen izan. Nola lokartu arazi gaueko burrunbetan kantuetarako doinuak galtzen direnean. Eta nahiko nuke kantu eder eta lasaia abestu, baina nire arimak, halakorik balego, gormutua da.

Eta nori errua bota? Ba ote du norbaitek errurik? Ba ote dugu madarikazio eternala jaurtitzerik hiltzaileei? Zer egin? Nola negar egin malkorik ez dagoenean?

(Kantari hasten da. Magaleko haurrari kantatuko balio bezala)

Les nenes maques al dematí
S'alcen i reguen
El seu jardí

Jo També rego el meu jardí
Faves i pèsols
Faves i pèsols i julivert

Julivert meu com t'has quedat?
Sense cap fulla
I el cap pelat.

(Barre egiten du. Haurrari hizketan)

Polita ezta? Zu bezain bat ezin. Ez, neronek ere ez dut ulertzen zer dioen. Txikitan ikasi nuen, urrutitik etorritako gazte batzuek erakutsita. Gu laguntzera etorri ziren. Denbora gutxi ordea, gero alde egin baitzuten. Edo bota egin zituzten, ez dut gogoan. Baina asko jolasten ziren gurekin. Eta gu ere adarra jotzen genien. (*barreak*), ez baitzuten tutik ulertzen esaten genuena.

(Haurraren hatzak hartuko balitu bezala) Honek txotxak bildu, honek sua piztu...

(Urrutian hegazkin hotsak entzuten dira. Razzia berri bat. Emakumeak zerura begiratzten du, eta instintiboki oinetakoak magalean babesten ditu)

Lasai, diote bonba bat erori den lekuan ez dela beste bat erortzen. Diote, baina zer dakite estatistika egileek? Han ote ziren? Euren burua jarri ote zuten bonbaren azpian airetik zetorrela? Ez ote ziren mugitu ere egin? Zer ote dakite beraiek? Beharbada beharrezkoa izango dute informazio hori ahalik eta lehergailu zehatzenak asmatzeko. Pertsonaren inteligentzia maltzurra da. Bizitza eternoarekin egiten du amets, bizia nola akabatu asmatzen duen bitartean.

Guk txakur bat geneukan etxean. Txakurrek ez dute ezer egiten, egon baizik. Jaiotzen dira, etxean egoten dira eta halako batean hil egiten dira. Eta bere orde, segur aski beste bat sartuko dugu etxean. Gure txakurra txikia zen. Arrazarik gabekoa. Txakurrik eta haurrik gabeko etxea, etxe tristea da, zioen gure amak. Eta arrazoia izango zuen, izan ere etxean txakurrik gabe geratu ginenean tristezi ospel bat sartu baitzen. Txakurrek guk entzun ezin ditugunak entzuten omen dituzte, eta animalia guztiek bezala, heriotza usaintzen omen dute. Gure txakurra egun batez desagertu egin zen. Eme baten atzetik joango ote zelakoan ginen gu. Ez genuen imajinatu hegazti doilorretik ihesean desagertu zela.

(Zapatak laztantzten ditu txakurra esku artean balu bezala)

Hori izan zen emakumeen etxea suntsitu zutenekoan. *(Pentsakor gelditzen da. Irribarre bat hazten hasi zairo oroimena etorri ahala)* Emakumeen etxea deitzen genion bakarrik emakumeak eta neskak, eta neskatxak biltzen zirelako. Gizonak debekatuta zuten sartzea, umetxoak izan ezik. Ederrak izaten ziren bilkura haiek. Emakumeek era guztietako istorioak kontatzen genizkion elkarri; garai bateko bizimodua nolakoa zen, pasadizo irrigarriak, istorioak eta, batez ere, ipuinak. Maite nuen ipuinak kontatzen hasten zirenean. Bazen beti emakume bat abila horretan, zaharra zen eta hitzak bere ahotik loreak bezala sortzen ziren. Gehienetan emakumeak ziren ipuin horietako protagonistak. Tarteka haurrentzat kontatzen zituen ipuinak, baina gero emakume helduak eta gazteak bakarrik uler zitzaizketenak. Orduan, nik ez nituen ulertzen batzutan egiten zituzten barre lotsati eta isilak, edo sekulako barre algarak. Handitu nintzenean bai *(barre egiten du)*, orduan bai, ulertu nituen barre haiek. Askotan gizonak izaten ziren barre haien arrazoia. Igarkizunak ere izaten ziren. Hurrei asko gustatzen zitzaizkigun, eta baita helduei ere,. Batzutan ez zituzten soluzioak ematen hurrengo bilerara arte eta hantxe ibiltzen ginen asmatu nahian galderak eta galderak egiten. Bada oraindik bat

asmatu ezinik nabilena. Normalean entzun baino egiten ez zuen emakume isil batek bota zuen, denen harridurarako; ea gogoratzen dudan:

(Ikusleei kontatzen die, bilkura haietako partaideak izango balira bezala)

Ipuin igarkizuna

Baziren behin hiru emakume aztikeri baten eraginez lore bihurtuta eman behar zutela bizitza zelai batean. Horietako bat, ordea, gauez emakume itxura hartzen zuen eta senarrarekin eman zezakeen eguna hasi bitarteko orduak. Behin, eguna hasi aurretik eta etxetik irten behar zuenean berriro lore bihurtzeko, esan zion senarrari: “Gaur eguerdia baino lehen, zelaira joaten bazara eta lurretik ateratzen banauzu, betirako egongo naiz zurekin”.

Eta halaxe egin zuen senarrak. Galdera da: nola jakin zuen zein lore hartu behar zuen hirurak berdin-berdinak izanik, inongo ezberdintasunik gabeak?

Gaur da eguna oraindik ez dudala erantzuna asmatu, eta tarteka saiaturen naiz asmatzen. Eta ezin diot emakume hari galdetu, egun doilor hartan desagertu baitzen.

(Barre algarak egiten ditu bat-batean) Ederra izan zen gizon batek bileran egon nahi izan zueneko. *(Barreak berriro, gogotsu)* Bazen gizon bat izugarri maite zituenak ipuinak eta kuriositateak erraiak jaten zizkion. Egun batean bururatu zitzaion emakumez janztea eta bileran agertu. Emazteari edo arrebaren bati kendutako, edo auskalo nondik lortutako emakume jantziekin kaletik barrena abiatu zen etxerantz. Aurpegia ere edertu zuen margo koloretsuekin. Ikusi behar zen gizon haren itxura! *(barreak)* Titi handi batzuk jarri zituen, bata hegoaldera eta beste iparraldera begira. Zergatik ote dute gizonak halako tema emakumeen bularrekin? Handiak behar ditugu, emakume “benetakoa” izateko! Agian, txikitan bularra hartzerakoan gelditu zaien irudia izango da, amaren goxoa izango dute gordea buruko zokoren batean *(ideia barregarri bat etortzen zaio derrepente)* edo beste lekuren batean *(barre egiten du berriro)*. Neronek ez daukat sekulako bularririk eta hargatik ez dut konplexurik. Batek baino gehiagok bularrekin baino errapeekin amestuko du seguru! Ba gizon hura bileran agertu eta denak begiratu genion jakina, ezin baitzuen disimulatu bere “jatorria” nahiz eta berak hala uste. Bileran zegoen zaharrenak, konturatu ez balitz bezala mintzatu zen *(Haren ahotsa imitatzen du): “Tira, badakizue astean behin bilera hasi aurretik badugula aitzinako ohitura. Gure emakume itxura ea behar den moduan zaintzen dugunaren froga. Hasi aurretik ikusiko dugu ea guztiak gure beheko aldean ondo zainduta dugun”*. Guztiak harrituak ginen ez baikenuen halakorik inoiz entzun, baina serio-serio jarraitu zuen. Orduan etorri berriari begiratu eta keinurik egin gabe esan zion: *“Ea, zu hasiko zara, lehenengo aldiz*

heldu baitzara. Erakutsi egiguzu zure alua”. Guk harritu aurpegia jarri bagenuen, ikusi behar zen tipoarena! (*barreak gogoratzerakoan*) Guk ezin barreari eutsi eta tipoa gorri-gorri hasi zen jartzen, urduri, zer egin ez zekiela. Emakumea berarengana hurbildu zen eta biluzten laguntzeko keinuak egin zituenean, ziztuan alde egin zuen gizonak, denak barrez lehertzen hasi ginelarik. Bilera haietan gizonak debekatuta zuten sartzea, eta han kontatzen zirenak emakumeak baino ezin zituzten entzun, hori zen legea. Orain ordea, zer gelditzen zaigu? (*Hasierako goibeltasunera itzultzen da*) Ezer ez! Oroimena baino ez. Eta hori ere debekatu nahi digute. Oroimena suntsitu. Sinestarazi lehen ez ginela eta gure patua ezinbestekoa izan dela. Gure errua. Gure egoskorkeria. Dagokigun lekua ez dugulako onartzen. Eurek erabakitzen dute zer gogoratu dezakegun eta zer ez. Arima lapurtu nahi digute. Izaera berri bat ezarri. Horregatik akabatzen dituzte haurrak, etxeak, kaleak. Zuhaitzak errotik ateratzen dituzte. Soroak gatzetan erre. Landareei haziak kendu. Gure istorioak eta ipuinak debekatu. Itxaropenik izan ez dezagun. Gure etorkizuna euren esku dagoela argi uzteko.

(Altxatzen da. Norbaiti zuzenduko balitz bezala. Orain bere ahotsa indartsu entzuten da. Sendo.)

Zer egin dizugu? Zer?! Zergatik tratatzen gaituzu zakur amorratuen gisa! Errotarrian lotuta dagoen astoari bizitza duinagoa ematen diozu. Zapaltzen ditugun osinak baino balore gutxiago dugu. Zerri jana ere ez omen dugu merezi. Eta zer gelditzen zaigu orduan? Bizitzaren patua datorren bezala onartzea? Harriak bezain mutu bizitzea? Zer gelditzen zaigu, geure burua gutxietsi errua gurea dela sinistu arte? Horretarako gara sortuak? Ba ez duzu lortuko. Ez duzu lortuko geure mintzoa, geure izaera, geure duintasuna lokaztea, galtzea, suntsitzea. Gelditzen zaigun bakarra gure izatearen kontzientzia da, horrek mantentzen gaitu duintasunean. Eta duintasun hori amorruez erakutsiko dugu, amorru duina.

Nekatuta nago, indarge. Arima, halakorik balego, malkoetan blai daukat. Nire oinek ez dute ia urratsik uzten lur madarikatu honetan. Nahiko nuke dena oraintxe amaituko balitz. Baina ezin dut. Etsitzea oroimena ondoratzea litzateke, duintasuna lokaztea, etxe atariko zapatak zaborretara botatzea. Bulebar zabaletan maitearen eskutik paseatzearen ametsa abandonatzea. Orri zuri batean egindako koloretako marrazkiak ahaztea. Eta datozen hurrek ez dute merezi koloretako margorik gabeko eskolarik. Ez dute merezi gure isiltasuna, gure doilorkeria. Itsas zabalekin amestea zor diegu, non belauntzi akasdunek nabigatzen duten, ez portuen bila, nabigatzearen gozamenaz baizik. Izurdeak lagun, txori kantaria masta nagusian eta lemazain irribarretsua, ostertza begiradan. Eta beti aurrera, beti aurrera, beti aurrera haizearen norabidean.

Amaiera

Iluna egiten da eta haur irribarretsuen argazkiak proiektatzen dira. Mundu osoko haurrak dira, beltzak, horiak, txuriak; hirikoak, mendikoak, basamortukoak, oihanekoak. “Etorriko dira berriz” kanta entzuten da Maddi Oihenart-en ahotsean.